

**EDITORIALA****Geuk gera genezake!**

Une zail hauetan, gobernuak patronal neoliberalenen antzera jokutzen dute, eta bilatzen dute bai negoziazio kolektibora-ko eskubidea de facto desagerraraztea, baita enplegu publikoa suntsitzea ere. Bada, garaia hauetan garrantzitsua da -erabakigarria esango genuke- errealitate egokitzea eta gure indar-korrelazioa hobetzea, afiliatuen eta, ondorioz, EITBko langile guztien interesetarako baliagarriak izateko.

2010. urteaz geroztik ordea, egoera guztiz aldatu digute eta orain hobekuntzak kudeatu beharrean, murrizketei aurre egin behar diegu. Egoera berri honi aurre egiteko gure jarrera ere oso bestelakoa izan behar du.

Egoera honetan, gure agintariak zergatik egiten eta betetzen dituzte lege bidegabeak? Zergatik egiten eta betetzen dituzte lege guztiz kaltegarriak, ustez ordezkatzan duten gizartearen pobretzea ekartzen dutenak? Zergatik egiten dituzte enplegua suntsitzen duten lege eta dekretuak?

Ziur egonda hartutako neurriak irizpide ideologikoei erantzuten dietela, gai izan behar dugu presio-uhole bat sortzeko, gure agintari politikoei -gure enplegugileek- beren erabakiak alda ditzaten. Behartu behar ditugu atzera botatzeko egindako murrizketak, eta enplegu publikoari eusteko. Finean, derri-gortu behar ditugu eskubide kolektiboen aurkako erasoekin behingoz bukatzera, bai eta gure artean hedatzen ari den aberastasunaren banaketa bidegabearekin amaitzera ere.

Eta guk zer egin behar dugu? Irtenbidea gure esku dago, Osakidetzako langileok antolatzeko dugun gure gaitasunean. Indar-korrelazioa irabazi eta irmotasun-jarrera erabatekoa sustatu behar dugu, beti ere mobilizazio egoki eta iraunkorrek batera. Horrela, neurri bidegabe horiek eraman gaituzten gatazka iraunkorren lekukotasuna eman ahal izango dugu. Ez dugu beste biderik. Gai bagara lortzeko, ez izan zalantzarik, egoera aldatzea lortuko dugu.



2011 ETA 2013 BITARTEAN EITB-KO KONTRATAZIOA GUTXITUZ JOAN DA APURKA-APURKA, ETA GURE LAN-BALDINTZAK BEHERAKA

# Maldan behera galgarik gabe

## Gogora dezagun apur batez...

**2010. urtean:** Lopezen gobernuak, Zapateroren dekretuaren aitzakiatan, %5 murriztu zuen soldata-masa. Neurri-sorta berean Itzarriri egin beharreko ekarpenen erdia kendu zigun (soldata gerortua). Murrizketa bi horiek gaur egun arte mantendu dira.

**2011. urtean:** Gobernu horrek berak, murrizketen programa liberalari orpoz orpo jarraiki, gaixotasuna zigortu zuen baliaezintasunagatik zeuden osagarriak kenduz. Hori gutxi ez balitz bezala, mahai orokorraren 2010eko akordioa ez zuen bete, enplegua suntsituz, ez baitzituen ordeztu aldi baterako beharizanak eta sortutako lanpostu hutsak amortizatu zituen. Horrez gain, mahai orokorrean adosturiko EPEa ez zuen bete.

Bide batez, ez zuen aukera galdu herri-langileen izena lohitzeko, eta patronal pribatuari erreferentziak emateko.

**2012. urtean:** Lopezen gobernuak, ikuskizun deitoragarria egin ostean, abenduko ordainsaria kendu zien Eusko Jaurlaritzako langileei (aholkulariek eta politikariek kobratu egin zuten, eta gero ez zuten itzuli, beren etika eta zintzotasun eza ondo agerian utziz). Itzarrirako ekarpenen %100 kentzea erabaki zuten, eta soldata berriz ere izoztu zigten.

**2013. urtean:** Urkulluren gobernuak soldata izoztu digu hirugarren aldiz, ondoz ondoko urteetan (2010ean jaitsi egin zigten).

**- KONTRATAZIOA = - ENPLEGUA  
+ MALGUTASUNA = - ENPLEGUA**

Esparru politiko guztietatik enpleguari eusteko beharra azpimarratzen duten mezuak plazaratzen dira. Hitz hutsalak dira. Hitzak eta gertaerak elkarren kontra daude. Urtero behin-behineko langile asko kanporatzen dute lanmerkatutik isil-gordean. EITB ez da salbuespena. Urte askotan kontratazio nahikoa (?) izan dugu,





bajak, oporrak... betetzeko bestekoa. Azken urteotan, ordea, bi gertaera aipagarri izan dugu: kontratazioaren kalitatea lorrindu (egun bakarreko kontratuak), eta kontratuko-kopurua jaitsi (obra-kontratuak

bakarrrik. Kontratazioa 2011 eta 2012 urteetan hasi zen aldapan behera (%18), eta 2013ko joera beretik jarraituz gero, jaitsiera are handiagoa izango da (%40).

ez berritu, bajak ez ordeztu, oporrak ez estali beti, programak pertsonal gutxiagorekin egin...) Horren guztia onduz gure lankide asko lanik gabe geratu dira edo, onenean ere, hilean kontratazio-egun batzuekin

Txanda-kontratuak egiten jarraitzen dute; baina kontratazioa, orokorrean, egun bateko edo biko lanetara mugatzen da, salbuespenak salbuespen, eta lanaldi partzialeko kontratuak ugalduta dira. Hori dena enpleguari eusteko!

Lan-erreformak malgutasunaren beharra sartu zuen enpresetan. Kategoriak alde batera utzi, eta lanbide-taldeak aipatu; dena enpresaren beharrezanetara hobeto egokitze. Baina kokka beti berbera izaten da: ahalik eta langile gutxien kontratatzea. ETBn ere ildo beretik doa: A kategoriakoek B kategoriako lanak egitea, kontratazioarako dirurik ez dagoelako. Edo, hobeto esanda, ez dago dirurik zenbait kontratazioarako...

Enpleguari eusteko, kontratazioari eutsi behar zaio; kontratazioari gabe ez dago enpleguari eusterik.

# ELAren ERRONKA

## Gurea berreskuratzea

**1. Lana banatzea eta enplegua sortzea, denok lan egitea izan dezagun, eta EITBren zerbitzuak lehenengo kalitatea berriro har dezan.** Alde horretatik, aldiro-aldiro sortzen diren aldi bateko ordezkapenak egiteaz gain, harantzago ere bagoaz, eta lanaldia laburtzea proposatzen dugu, enplegu publikoa banatzeko neurri gisa, eta esparru pribaturako eredu gisa.

Horregatik, gure lehentasuna EITBn suntsitutako enplegu guztia berreskuratzea da.

**2. Soldata-igoera.** Orain arte egindako soldata-murrizketak berreskuratzea (%20). Era berean, lan ezintasunaren bajetan %100 berreskuratzea (sindika-

tu honen lorpena orain dela 30 urte).

Neurri horiek guztiak ezinbestekoak dira aberastunaren banaketa zuzenagoa lortzeko, eta enplegua sortzeko.

**3. Hitzarmenetan eta itunetan adosturikoa betetzeko konpromisoa.**

**4. EPE-deialdiak, langileei egonkortasuna emateko.**

Neurri horiek guztiek eragin zuzena dute kontratazioan, bestela lan-kargak handitzen dira, eta lanaren kalitatea hondatu.



## Krisia: errealitatea edo eskubiderik gabe uzteko zurikeria?

Behin eta berriro segurtatzen digute ez dagoela dirurik, eta, hori dela eta, murrizketak saihestezinak direla. **Dena den, komeni zaizu hauek ezagutzea:**

- 2007tik EAEko Barne Produktu Gordina (BPGd) konstante mantendu den arren, zerga bilketa %17 jaitsi da.
- EAEko presio fiskala Europar Batasunaren batz bestekoa baino %8 baxuagoa da. Presio fiskal berdinarekin urtero 4.400 milioi euro gehiago bilduko lirateke.
- Lan-errentek jartzen dute PFEZren diru-bilketaren %90, nahiz eta BPGdaren %45 izan. BPGdaren gainerako 55ak (enpresa- eta kapital-errentek) diru-bilketaren %10 jartzen dute bakar-bakarrik.
- Gastu publikoa Europar Batasunaren (EB) batez bestekoa baino %5 baxuagoa da. Europako batz bestekoaren pareko gastua izanez gero, urtean 3.200 milioi euro gehiago gastatu beharko lirateke. Alderatzeko adibidea AHTn dugu non bere aurrekontua (ez azken gastua) EAEn 4.615 milioi eurotako da.
- Iruzur fiskala. Foru Ogasunek baietsi eta onartuta-

ko iruzur fiskala BPGdaren %20tik gorakoa da. Iruzur horren %70etik gora enpresa handiek egiten dute; familiek egindakoa, aldiz, ez da %3ra ere iristen. Errenta-aitorpenen %1 baino ez da gainbegiratzen.

■ IBEX 35eko enpresek 14.300 milioi eurotako irabaziak lortu dituzte urtearen lehen erdian, 2012ko lehen seihilekoan baino %103,5 gehiago.

Behin eta berriro esaten digute lagundu egin behar dugula. **Baina benetan guztiek hala egiten dute?**

- Egoera latz batean logikoena litzateke dirua hobeto banatzea, guztiek aurrera atera ahal izateko. Dena den, soldatak BPGdaren %45 baino ez dira, duela urte gutxi batzuk %52 zirenean.
- Aldaketa hori honako hauek eragin dute: erabaki politikoek eta lan-arloan eta fiskalitatean izandako aldaketek; enpresa handien iruzurrarekiko permisibitateak, eta abar.
- Zergei dagokienez, kapital-errentek %21-22 ordaintzen dute. Laneko errentek gutxienez %23 ordaintzen dute.
- 165.000 eurotik gorako errentek %45 ordaintzen dute. Duela urte batzuk, %56.
- Enpresa-irabaziek %25,5 ordaintzen dute. Duela ez asko %30,5.
- Enpresa-errentek, batz bestek, urteko 10.500 euro gutxiago aitortzen dute lan-errentek baino.

## BAI, BADAGO ALTERNATIBARIK

Botere ekonomiko eta politikoek sinestarazi nahi digute ez dagoela alternatibarik, baina gezurretan ari dira. Zailtasunak zailtasun, murrizketak saihestu ahal izan ditugu gure inguruan. Hona hemen zenbait adibide:

● Nafarroan legez onetsi da 35 orduko asteko lanaldia eta soldataren %100 ordaintzea aldi baterako ezintasuneko bajetan Administrazio osoan, OSASUNBIDEA ere barne. Era berean, legez ere onetsi da 2012ko abenduaren ordainsariaren pareko diru-kopuru bat ordaintzea, aparteko ordainsari hura ez baitzen ordaindu. Lege hori hurrengo alderdi hauen botoei esker onetsi zen (PSN, Bildu, Aralar-Na Bai, Izquierda-Ezkerra, eta Geroa Bai (PNV koalizioko partaide izanik).

● Gipuzkoako Aldundiak eta Donostiako Udalak abenduaren ordainsariaren pareko osagarri bat ordaindu zuten. Gaur egun EAEko 50etik gora udalek ordaindu dute, dagoeneko, 2012ko abenduaren ordainsariaren ordezkia.

● EAEko udaletako langileek, salbuespenak salbuespen, astean 35 orduko lanaldiarekin jarraitzen dute.


● Aldi baterako ezintasuneko egoeraren osagarria %100ekoa da administrazio askotan, horietako batzuetan PPK berak gobernatzeko baditu ere —horra hor Gasteizko Udala—.

● Metro-Bilbaon lan-erreformatik blindatu dira, eta beraz 35 orduko lanaldia mantentzen dute, aldi baterako ezintasunaren %100, plantilla ugalduta, soldata-igoerak...

● Euskotrenen Metro-Bilbaon beste hitzartu dute.

● Bizkaibusen, Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmenen baldintzei eustea erabaki du (35 orduko lanaldia, KPIren pareko soldata-igoerak, ABE %100...)

**Aipaturiko administrazioetako langileek lortu badute, zergatik ezin da EITBn?** Gure proposamena ez da utopia bat, borondate politikoaren baitan dago. Nahi badugu eta sinetsita bagaude, mugitu eta borrokatu behar dugu horren alde.



## Murrizketak irratian



Soldata-jaitsierak, izozketak, diruzgorrak gaixotasun-egoeretan, lanaldi-luzapenak —euskarri eta espainiar gobernuaren dekretuen ondorioz—... iceberg-tontorra baino ez dira adierazteko zenbateraino okertu diren lan-baldintzak Eusko Irratian.

2009ko urtarrilaz geroztik lanpostuen %20tik gora galdu dugu, ordezkapenak izugarri murriztu dira,

kolaboratzaileen kopuru handi bat kendu dute, eta weben egin beharreko ekarpenak gero eta gehiago dira; bestela esateko, nabarmen handitu da lan-karga, soldata txikiagoen truke. Zuzendari nagusia, ordea, ez dirudi ezertaz jabetu den; eta jendaurrean plazaratzen duen ideia zera da: gure langile-taldeak gehiago lan egin behar du, zeren ekoizte-txeei ezin zaie gehiago atera.

Hori izango ote da arrazoa, agian, enpresa honetan hitzarmen egoki bat sinatzeko aukerarik ez izateko? Lan-erreformak dakarren eskubide-murrizketatik langileak babestuko dituen hitzarmena, alegia?

Hori izango ote da arrazoa Maite Iturbek azken elkarrizketan iragarri duena iragartzeko? Hau da, irratian pertsonal-murrizketa gehiago egingo dela?

Beharbada hori izan da arrazoa Madrilo korrespontsaliarako ekoizte-txe bat kontratatzeko?

Joan den irailtik Espainiako Erresumaren berri ematen duten kazetariak azpikontratatuak izan dira. Ekoizte-txe batek aldi baterako lanerako enpresen lana egiten du Eusko Irratirako, hori sektorearekiko elkartasuna izango ote da?

Euskal irratik publikoak herritarrei ematen dien informazioa, anitza ez ezik, egiaztatua ere izan behar da; eta, horretarako, baliabideak behar dira. Euskal irratik publikoaren eredu oso urruti egon beharko litzateke Estatuko komunikabideen ezaugarri diren kontrol ideologikoaren eta lan-zapalkuntzaren estandarretatik, eta aitzitik, gero eta hurbilago gaude.

Eusko Irratiko ELA-ordezkaririk uste dugu antolamendua eta langileen ekintza-batasuna direla gakoa, horrela bakarrik lortu ahal izango dugu kalitatezko maila onargarri bat, ez bakarrik egiten dugun produkturako, egiten dugunon lan-baldintzetarako ere bai.


www.ela-sindikatu.org

**Afiliazio orria**    Hoja de afiliación

---

<b>NAN/EIZ:</b> <small>DNI/NIE</small>	<b>Emakumezkoa / Mujer</b> <input type="checkbox"/>	<b>Lantokia:</b> <small>Empresa</small>
	<b>Gizonezkoa / Hombre</b> <input type="checkbox"/>	
<b>Izena:</b> <small>Nombre</small>		<b>G.S.ko kotizazio kontu kodea:</b> <small>Código cuenta cotización S.S.</small>
<b>1.abizena:</b> <small>1º apellido</small>		<b>Helbidea:</b> <small>Domicilio</small>
<b>2.abizena:</b> <small>2º apellido</small>		<b>Herria:</b> <small>Localidad</small>
<b>Jaiotze herria/idea:</b> <small>Lugar de nacimiento</small>	<b>Jaiotze data:</b> <small>Fecha nacimiento</small>	<b>Lanbidea:</b> <small>Profesión</small>
<b>Herria:</b> <small>Localidad</small>	<b>P.K.:</b> <small>C.P.</small>	<b>Kategoria:</b> <small>Categoría</small>
<b>Helbidea:</b> <small>Dirección</small>		<b>Lan-hitzarmena:</b> <small>Convenio</small>
<b>Herria/idea:</b> <small>Provincia</small>		<b>Banku edo Aurrezki Kutza:</b> <small>Banco o Caja de Ahorros</small>
<b>Telefonoa:</b> <small>Teléfono</small>	<b>Mugikorra:</b> <small>Móvil</small>	<b>Kontuko zenbakia:</b> <small>Nº de cuenta</small>
<b>E-posta:</b> <small>E-mail</small>		<b>Data / Fecha</b> <b>Sinadura / Firma</b>

---

Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatzen duenez, eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege-Dekretuak garatutakoaren arabera, ELA sindikatuan izena ematen duenak badaki, eta onartu egiten du, bere datuak Sindikatuko artxibo automatizatuetan jasotzen direla; datuak artxibo horietan era konfidentzialean jasota geratuko dira. Datu horiek indarrean diren arauak aintzat hartuz landu eta babestuko dira, eta bere titularrak eskubidea izango du Sindikatuaurrean, datuetara iritsi, berriek zuzendu, ezabatu edo aurka egiteko.

De acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de Carácter Personal, y su desarrollo por el Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, la persona que se afilia en el Sindicato ELA queda informada y acepta la incorporación de sus datos a ficheros automatizados existentes en el Sindicato, que se conservarán en el mismo con carácter confidencial. Tales datos serán tratados y protegidos con arreglo a la normativa vigente, y el titular de los mismos podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación u oposición ante este Sindicato.